

BILBOK MUGIKORTASUNAREN ASTE EUROPARRAREN XX. EDIZIOA OSPATUKO DU “OINEZ NAHIZ BIZIKLETAZ, BETI SEGURU” LELOPEAN

Areatzan egingo da ekitaldia irailaren 19a eta 22a bitartean, herritarren iritzia sentsibilizatzeko eta mugikortasun jasangarria eta osasungarria sustatzeko ekintzekin.

Bilbon, 2019ko irailaren 13an. Bilbok hogeigarren urtez jarraian ospatuko du MUGIKORTASUNAREN ASTE EUROPARRA (MAE Bilbo 2019), Europar Batasunak eta Bilboko Udalaren Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailak bultzatuta. Horrez gain, uriko hainbat enpresek, erakundek eta komunikabidek emandako laguntza eta parte-hartzea oso garrantzitsuak dira. Edizio honetako leloa “*Oinez nahiz bizikletaz beti seguru*” da.

Ekimen europar honek uriak animatzen ditu **garraio jasangarriko neurriak sustatzera eta abian jartzera eta herritarrak autoa ez diren beste aukera batzuk probatzera gonbidatzen ditu**. Horrela, bada, Bilbok bere harri-koskorra ekarriko die aurten ere Europako Batzordeak ezarritako helburu handiei uriko mugikortasunaren arloan: erregai arruntekin dabilzan autoak apurka-apurka kentzea 2050erako eta emisiorik gabeko logistika baterantz joatea uri nagusietan 2030ean.


Hamarkada bi hauetan asko aurreratu da gure botxoa herritarrentzako leku atsegina eta osasungarriagoa izan dadin, oinez edo bizikletaz joateko erosoagoa izan dadin, osasuna eta bizikaltatea hobetzen duten ariketa aktibo modura: oinezkoentzat egokitutako espazioak, espaloi zabalagoak, bizikleta ohiko garraioen alternatiba izateko apustu sendoa udal bizikletak mailegatzeko zerbitzuaren bidez, 450 bizikleta elektriko jartzea zerbitzu horretan, gero eta bidegorri gehiago egitea edo trafikoaren abiadura uri osoan moteltzea; era berean, diru asko inbertitu da igogailuetan eta arrapaletan, altueren desberdintasunak bizilagunen bizitzari eragiten dion lekuetan irisgarritasuna errazteko; autobusak erosi dira jasangarritasunaren irizpideak erabilia, karga elektrikoa egiteko lekuak egokitu dira... Konpromiso hori etorkizunean luzatuko da Bilboko pertsona guztien onurarako planifikatu diren neurriekin.



#SEMBilbao2019 | @SEM_Bilbao

MUGIKORTASUNAREN ASTE EUROPARRA
SEMANA EUROPEA DE LA MOVILIDAD

16-22 IRAILA SEPTIEMBRE

 #mobilityweek



MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN FERIA
FERIA DE LA MOVILIDAD SOSTENIBLE

AREATZA 19-22 ARENA

Oinez eta bizikletaz segurtasunez ibiltzea
Camina y pedalea con seguridad

Aurten lehenengo aldiz, Bilbao Iberdrolak eta Athletic Fundazioak bat egin dute MAErekin, beren inguruan eragina zabalduz.

MAE BILBO 2019

2019ko Mugikortasunaren Aste Europarra datorren astelehenean, irailak 16, hasiko da, **belaunaldien arteko hitzaldi-paseo batekin**; adinekoentzat eta dibertsitate funtzionala daukaten pertsonentzat osasungarriak eta seguruak diren ibilbideei buruz hitz egingo da Otxarkoaga-Txurdinagako Erretiratuen Elkartean. Lehen ekitaldi horretan oinez egiteko 15 ibilbide aurkeztuko dira, 5 kilometro baino apur bat gehiagokoak. Bilbo ezagutzeko 15 ibilbide dira, bertatik igarotzen diren pertsonak beren osasuna eta ongizatea zaindu dezaten eta, horrez gain, espazio publikoak konkista ditzaten. Horrela, bada, Bilbok bat egiten du MUGIKORTASUNAREN ASTE EUROPARRAREN aurtengo dei nagusiarekin, Erdu oinez gurekin! eta leloa *“Oinez nahiz bizikletaz, beti seguru”* leloarekin modu berezian nabarmendu nahi du gutxietsi egin ohi den garraiobide bat: oinez joatea.

Hori dela-eta, MUGIKORTASUNAREN ASTE EUROPARRA (MAE Bilbo 2019) irailaren 22an, domeka, bukatuko da, hain zuzen ere Bilbao nire kotxe barik” eguna ospatuz. Horri gehituko zaizkio ohiko **Bizikletazko Ibilaldi Herrikoa** eta, lehen aldiz aurten, **10.000 urratsen Ibilaldia**. Adin guztietako pertsonentzat izango da eta bat egiten du Munduko Erakundeak helduei sasoian egoteko egiten dizkien gomendioarekin.


Zenbait hitzordu izango dira aste osoan eta irailaren 18tik 22ra jarduerak areagotu egingo dira Areatzako **Mugikortasun Azokarekin**. Bertan, urian abian jartzen ari diren estrategien berri emango zaie herritarrei eta, aldi berean, haien ekarpenak eta ideiak jasoko dira. Gero, mugikortasun jasangarriaren arloko berritasunak erakutsiko dira. Izan ere, edizio honetan Bilbok goi-goian jarriko du muga eta erakusketa handi batean ibilgailu elektrikoak eta jasangarriak izango ditu (automobilak, motorrak, bizikletak eta itsasontzi elektriko bat), ikusteko eta probatzeko. Mugikortasunaren Azokan umeentzako jarduera ugari izango dira, “Bilbobus atzo, gaur eta bihar” erakusketa, bizikletaren oinarritzako mekanikari buruzko tailerrak, nordic walking-eko ikastaroak eta martxak, monitoreekin egingo diren doako ibilaldiak, eta gune bat musikarekin eta janari furgonetekin.



#SEMBilbao2019 | @SEM_Bilbao

MUGIKORTASUNAREN ASTE EUROPARRA
SEMANA EUROPEA DE LA MOVILIDAD

16-22 IRAILA SEPTIEMBRE

 #mobilityweek



MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN FERIA
FERIA DE LA MOVILIDAD SOSTENIBLE

AREATZA 19-22 ARENA

Oinez eta bizikletaz segurtasunez ibiltzea
Camina y pedalea con seguridad

OINEZ NAHIZ BIZIKLETAZ, BETI SEGURU

Europako Batzordeak gogoratzen digu MUGIKORTASUNAREN ASTE EUROPARRA aukera egokia dela mugitzeko modu garbiak probatzeko, garraioak gaur egun dauzkan desafioen balantzea egiteko eta Europan mugikortasun jasangarriago baterantz joateko.

MUGIKORTASUNAREN ASTE EUROPARRA kontzientziazio kanpaina bat da, arduradun politikoei eta herritarrei erakusteko autoa hirietan modu irrazionalean erabiltzeak dakartzan ondorio negatiboak zeintzuk diren, osasun publikorako eta ingurumenerako, eta garraiobide jasangarriagoek (garraio publikoak, bizikletak eta oinez joateak) dakartzaten onurak zeintzuk diren.

Ekimena 2000. urtean sortu zen. Asteazken zehar jarduerak egingo dira mugikortasun jasangarria sustatzeko eta jardunbide egokien eta behin betiko neurrien garapena bultzatzeko. Eta hilaren 22an Bilbao nire kotxe barik! eguna ospatuko da, urietan zirkulazio handiarekin lotutako arazoei konponbide berriak bilatzen ahalegintzeko.

Nabarmentzekoa da ekimen honetan gizarte zibilak, elkarteek, erakundeek eta enpresek daukaten zeregina. Asteazken zehar jarduerak egiten dituzte mugikortasun jasangarriarekin lotuta, kutsatzen ez duen garraiobide bat aukeratzen dugunean jokabide-aldaketak dakartzan onura individualaren eta kolektiboaren inguruan beren eraginpeko herritarrak kontzientziazteko.

MUGIKORTASUNAREN ASTE EUROPARRA 2002an abian jarri zenetik, – lehen Bilbao nire kotxe barik zen – bere eragina etengabe hazi da. 2018an, kanpainak bere marka hautsi zuen eta 2.792 herrik eta hirik hartu zuten parte, aurreko urtean baino 266 erakunde gehiago.

IRAILAREN 22a, BILBAO NIRE KOTXE BARIK! BILBAO NIRE KOTXE BARIK!

Aurten ere, eta dagoeneko zortzi urte dira alderreskan, Mugikortasunaren Aste Europarrak Bilboko Ibiltariaren Saria emango du. Sari honek Bilbo atseginagoa, bizigarriagoa eta jasangarriagoa izaten laguntzen duten pertsonen lana eta balioak aitortzen ditu. Sarituak oroitzapenezko plaka jaso eta “Bilbao nire kotxe barik!” adierazpena irakurriko du.


Edizio honetan proposatu diren hautagaiak dira Txema Soria eta Jon Mujika kazetariak, Marisa Salas aktore eta umorista, eta Bilbao Basket taldeko Alex Mumbrú eta Javi Salgado jokalariek.



#SEMBilbao2019 | @SEM_Bilbao

MUGIKORTASUNAREN ASTE EUROPARRA
SEMANA EUROPEA DE LA MOVILIDAD

16-22 IRAILA SEPTIEMBRE

 #mobilityweek



MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN FERIA
FERIA DE LA MOVILIDAD SOSTENIBLE

AREATZA 19-22 ARENA

Oinez eta bizikletaz segurtasunez ibiltzea
Camina y pedalea con seguridad

Aurreko edizioetan legez, ingurumenaren eta jasangarritasunaren arloko sentsibilizazio-ekimenetan laguntzen duten hedabideetan egingo diren bozketen bidez eta Bilbao sin mi Coche / Bilbao nire Kotxe barik web orrian (<http://bilbaosinmicoche.net>) irailaren 20ra arte jasotako botoen bidez hautatuko dute herritarrek irabazlea.

Ibiltariaren sariaren irabazleen zerrenda

Sariaren lehengo irabazlea, 2012an, Virginia Berasategi triatleta bilbotarra izan zen. 2013an, berriz, audientziak Bilboko Txikiteroak aukeratu zituen; 2014an, Bakuva gizarte laneko elkarte izan zen garailea eta 2015ean sariduna Gorabide Elkartea. 2016an Ibon Areso Bilboko alkate ohiari eman zitzaion eta 2017an emakume bilbotarrei, garraio publikoaren erabiltzaile nagusiak izateagatik. Eta azken edizioan Fortunato Vencedor izan irabazlea, maratoiak egiten dituen laurogeitaka urteko korrikalari bilbotarra.

Bilboko 2017ko Mugikortasunaren Aste Europarrean laguntzen duten hedabideak


2019ko Mugikortasunaren Aste Europarrarekin elkarlanean diharduten komunikabideetan egingo den bozketan eman ahal izango dute botoa bilbotarrek irailaren 11tik 20ra bitartean. Hartara, Deia, El Diario Norte eta El Mundo egunkarien eta la Ría del Ocio aldizkariaren webguneetan eta eitb.com helbidean, eta Telebilbao, Radio Nervión, Bizkaia Irratia, COPE, Onda Vasca, Onda Cero, Radio Bilbao eta Radio Popular irratietako programetan eta "Bilbao sin mi Coche / Bilbao nire Kotxe barik" (www.bilbaosinmicoche.net) orrian aukeratu ahal izango da.



#SEMBilbao2019 | @SEM_Bilbao

MUGIKORTASUNAREN ASTE EUROARRA
SEMANA EUROPEA DE LA MOVILIDAD

16-22 IRAILA SEPTIEMBRE

 #mobilityweek



MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN FERIA
FERIA DE LA MOVILIDAD SOSTENIBLE

AREATZA 19-22 ARENA

Oinez eta bizikletaz segurtasunez ibiltzea
Camina y pedalea con seguridad



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

BABESLEAK | PATROCINADORES



LAGUNTZAILEAK | COLABORADORES



Leloa Wagen Audi



KOMUNIKABIDEAK | MEDIOS DE COMUNICACIÓN

